

Irurtzunen, bi mila eta hamarreko urtarrilaren hogeian, arratsaldeko zazpiak direnean, Ezohiko Bilkura egitearren Irurtzungo Udaleko Udalbatza, legeak agintzen duen moduan deituta, Batzar-gelan elkartu da Juan Jose Iriarte Vitoria alkate-lehendakaria buru dela. Bertan izan dira ondoren aipatzen diren zinegotziak:

Francisco Goicoechea Arbizu
Jose Javier Recalde Maestre
Saray Ongay Garcia
Jose Luis Viñas Estudillo
Xabier Unanua Goicoechea
Luis Enrique de la Calle Moreno
Maria Nieves Uterga Juango
Eduardo Murugarren Frances
Francisca Arruabarrena Quintana

Eta idazkaria naizen hau, Santos Iragui Hualde.

Ez da etorri, eta ez du ezin etorria adierazi du Jose Peinado Cuestak.

AURREKO BILKURAREN AKTA ONETSI

Bilkurari hasiera emanda, udalburuak deialdiarekin batera banatu den 2009ko abenduaren lehen egindako Bilkuren Aktari zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dion galdetu du. Oharririk egin ez zaionez, aho batez onartu da.

ENPLEGU ETA UDALERRIEN JASANGARRITASUNERAKO FUNTSARI BURUZKO ALKATETZAREN PROPOSAMENA

Alkatetzaren proposamen hau irakurri da:

“Enplegurako eta udalerrien jasangarritasunerako Estatuko funtseko diru-laguntzen kargura egin asmo diren inbertsioak egitea onartzeko alkatetzaren proposamena.

Hirigintza, Etxebizitza, Partzuergo eta Ingurumen Batzordeak legeak agintzen duen moduan irizpena ematerik izan ez duenez, zilegi da alkatetzaren proposamen gisa aurkeztea.

Proposatzen den akordioa da enplegurako eta udalerrien jasangarritasunerako Estatuko funtseko diru-laguntzen kargura honako inbertsioak egitea onartzea:

- Irurtzongo herriguneko hainbat lekutan eraikinetako traba arkitektonikoak kentzea, eta hilerrirako kalea egokitzea; 41.930,96 euro (BEZ barne), edo 36.147,38 euro (BEZ barne).
- Irurtzongo udal-eraikineko lokala egokitzea ekipamenduetarako; 88.098,32 euro (BEZ barne), 75.946,83 euro (BEZ barne).
- 11/2007 legea betetzeko, 2010ean soluzioak zabaltzea; 14.961,37 euro (BEZ barne), edo 12.897,73 euro (BEZ barne).
- Gizarte-arloko programak; 48.397,00 euro.”

Proposamena eguneko aztergaietara sartzearen inguruko bozketa eginda, aho batez onartu da.

Jarraian, oraingoan ere aho batez, honako hau erabaki da:

1.- Enplegurako eta udalerrien jasangarritasunerako Estatuko funtseko diru-laguntzen kargura honako inbertsioak egitea onartzea:

- Irurtzongo herriguneko hainbat lekutan eraikinetako traba arkitektonikoak kentzea, eta hilerrirako kalea egokitzea; 41.930,96 euro (BEZ barne), edo 36.147,38 euro (BEZ barne).
- Irurtzongo udal-eraikineko lokala egokitzea ekipamenduetarako; 88.098,32 euro (BEZ barne), 75.946,83 euro (BEZ barne).
- 11/2007 legea betetzeko, 2010ean soluzioak zabaltzea; 14.961,37 euro (BEZ barne), edo 12.897,73 euro (BEZ barne).
- Gizarte-arloko programak; 48.397,00 euro.

2.- Dagokion Batzordeari hartutako erabakiaren berri ematea, Antolakuntza eta Jarduera Araudiaren -AJA- 126.2 artikuluan xedatutakoa betez.

ENPLEGURAKO LAGUNTZA ESKAEREN INGURUKO ALKATETZAREN PROPOSAMENA

Alkatetzaren proposamen hau irakurri da:

“Enplegurako laguntza-eskaera egiteko alkatetzaren proposamena.

Hirigintza, Etxebizitza, Partzuergo eta Ingurumen Batzordeak legeak agintzen duen moduan irizpena ematerik izan ez duenez, zilegi da alkatetzaren proposamen gisa aurkeztea.

Proposatutako akordioa honako hau da:

1.- “Kirol-instalazioen, kaleen eta lorategien mantentze-lana” izeneko proiektua onartzea.

2.- Nafarroako Enplegu Zerbitzuari "kirol-instalazioen, kaleen eta lorategien mantentze-lana" izeneko proiekturako dagokion diru-laguntza eskatzea.

Proposamena eguneko aztergaietara sartzearen inguruko bozketa eginda, aho batez onartu da.

Jarraian, oraingoan ere aho batez, honako hau erabaki da:

1.- "Kirol-instalazioen, kaleen eta lorategien mantentze-lana" izeneko proiektua onartzea.

2.- Nafarroako Enplegu Zerbitzuari "kirol-instalazioen, kaleen eta lorategien mantentze-lana" izeneko proiekturako dagokion diru-laguntza eskatzea."

3.- Dagokion Batzordeari hartutako erabakiaren berri ematea, Antolakuntza eta Jarduera Araudiaren -AJA- 126.2 artikuluan xedatutakoa betez.

KIROL ARLOKO DIRU LAGUNTZAK EMATEKO ALKATETZAREN PROPOSAMENA

Alkatetzaren proposamen hau irakurri da:

"Kirol-arloan diru-laguntzak emateko alkatetzaren proposamena. Kirol Batzordeak legeak agintzen duen moduan irizpena ematerik izan ez duenez, zilegi da alkatetzaren proposamen gisa aurkeztea.

Proposatutako akordioa honako hau da:

1.- Ondoren aipatzen diren diru-laguntzak ematea 2009ko aurrekontu luzatuaren 4523 kontu-sailaren kargura:

- 2.700,00 euro Xota FSri.

- 600,00 euro Herri Kirolei.

2.- Guan taldeari 1.000,00 euroko diru-laguntza ematea areto-futboleko "12+12 ordu" izeneko txapelketa antolatzeagatik, 2009ko aurrekontu luzatuaren 4523 2270901 kontu-sailaren kargura.

Proposamena eguneko aztergaietara sartzearen inguruko bozketa eginda, aho batez onartu da.

Jarraian, oraingoan ere aho batez, honako hau erabaki da:

1.- Alkatetzaren proposamenean jasotako diru-laguntzak onartzea.

2.- Dagokion Batzordeari hartutako erabakiaren berri ematea, Antolakuntza eta Jarduera Araudiaren -AJA- 126.2 artikuluan xedatutakoa betez.

KULTURA ARLOKO DIRU LAGUNTZAK EMATEKO ALKATEZAREN PROPOSAMENA

Alkatetzaren proposamen hau irakurri da:

“Kultura arloan diru-laguntzak emateko alkatetzaren proposamena. Kultura Batzordeak legeak agintzen duen moduan irizpena ematerik izan ez duenez, zilegi da alkatetzaren proposamen gisa aurkeztea. Proposatutako akordioa da Iskidi Ihoaldun Taldeari 1.000,00 euroko diru-laguntza ematea 2009ko Pikurock jaialdia antolatu izanagatik, 2009ko aurrekontu luzatuaren 4513 2270708 kontu-sailaren kargura.”

Proposamena eguneko aztergaietara sartzearen inguruko bozketa eginda, aho batez onartu da.

Jarraian, oraingoan ere aho batez, honako hau erabaki da:

1.- Alkatetzaren proposamenean jasotako diru-laguntzak onartzea.

2.- Dagokion Batzordeari hartutako erabakiaren berri ematea, Antolakuntza eta Jarduera Araudiaren -AJA- 126.2 artikuluan xedatutakoa betez.

MUSTUTZEN ELKARTEAREN ESKAERAREN INGURUKO ALKATEZAREN PROPOSAMENA

Alkatetzaren proposamen hau irakurri da:

“Mustutzen Elkarteak egindako eskaeraren aldeko alkatetzaren proposamena. Kultura Batzordeak legeak agintzen duen moduan irizpena ematerik izan ez duenez, zilegi da alkatetzaren proposamen gisa aurkeztea. Mustutzen Elkarteak eskatuta, proposatzen akordioa da 2010eko aurrekontuak onartuko dituen Sakanako Mankomunitatearen batzar nagusian Sakanaren Egunerako partida bat zabaltzea bultzatzea.”

Proposamena eguneko aztergaietara sartzearen inguruko bozketa eginda, aho batez onartu da.

1.- 2010eko aurrekontuak onartuko dituen Sakanako Mankomunitatearen batzar nagusian Sakanaren Egunerako partida bat zabaltzea bultzatzea.

2.- Dagokion Batzordeari hartutako erabakiaren berri ematea, Antolakuntza eta Jarduera Araudiaren -AJA- 126.2 artikuluan xedatutakoa betez.

BATZORDEEN INFORMAZIOA

Ez dago besterik.

GALDE-ESKEAK

Ez dago besterik.

Aztergai gehiagorik ez dagoela, eta arratsaldeko zazpiak eta hogeita hamar minutu direnean, udalburuak bilkura amaitutzat jo du. Idazkari naizen honek bilkuraren Akta jaso, eta horren egiaztapena egiten dut.